



SOPELAKO VII. ARGAZKI RALLYA

OINARRIAK

Noiz: 2024/06/30

Tokia: Sopelako Udaletxea

Ordutegia: Egiaztapen argazkia 8:30-10: 00/ Argazkien aurkezpena: 13:00-14: 30

ZER DA ARGAZKI RALLY BAT?

Argazki-rallya argazkilaritzaz gozatzeko jarduera bat da, non parte-hartzaile bakoitzak gai zehatz batzuk jasotzen dituen (guztientzat berdinak direnak) eta gai hoiekin zerikusia duten argazkiak egiteko denbora mugatua duen. Rallya amaitzean antolakuntzari argazkiak ematen zaizkio. Argazki horiek epaimahai batek ebaluatzen ditu eta, puntuazioen arabera, azken sailkapen bat ezartzen da.

IZEN-EMATEAK

Rallya 2024ko ekainaren 30an egingo da, Sopelan. Izen-ematea doakoa izango da eta egun horretan bertan egin beharko da, udaletxeko sarreran, goizeko 8:30etatik 10:00etara. Nahi duten guztiek eman dezakete izena.

Baztertu egiten da gailu mugikorrak (sakelekoak, tabletak...) erabiltzea Argazki Rallyan parte hartzeko.

Sopelako Argazki Rallya Herriz Herri txapelketan sailkatzeko baliagarria izango da.
<https://hhargazki.eus>

RALLYAREN GARAPENA

Rallyaren egunean, parte-hartzaile bakoitzak memoria txartel formateatu batekin joan beharko da, eta bere kamerarekin, data eta ordu zuzenarekin.

Izena ematen duten pertsonen Sopelako Udaletxeko sarrerara joan beharko dute goizeko 8:30etatik 10:00etara izena emateko, rallyko 5 gaiak jasotzeko eta egiaztapen argazkia egiteko. Ondoren, rallya hasi ahal izango dute.

Irudiak 13:00etatik 14:30era jasoko dira udaletxeko atondoan, eta memoria-txartelean 36 artxibo egongo dira gehienez. Argazkiek JPG formatuan egon beharko dute. Ezin da argazkiak atera ondorengo ediziorik egin (ezta kameran bertan egiten dena ere). Argazkia egin aurretik doikuntzak egin daitezke (zuri-beltzekoak barne).

Parte-hartzaile bakoitzak dagokion posta elektronikora bidaliko du gai bakoitzean parte hartzeko erabiliko dituen argazkien aukeraketa, gaiaren letra eta dagokion JPG zenbakia argi eta garbi adierazita, uztailaren 3ean, asteazkena, amaitu baino lehen.

Rallyan emandako argazkiak ezin izango dira argitaratu antolatzaileak epaia eman arte,

sare sozialetan, blog pertsonaletan, beste lehiaketa batzuetan, etab. Parte-hartzailereren batek hala eginez gero, rallytik kanporatua izango litzateke.

Argazkietan **ezin izango da agertu ezagutu daitekeen adingaberik.**

EPAITZA

Epaimahaia argazkigintzari lotutako pertsonak osatuko dute, UK Fotok izendatuak, eta haien epaia apelaezina izango da. Epaimahaiak ez du inoiz ezagutuko irudien egilea.

SARIAK

Lehen saria: 250 €.

Bigarren saria: 150 €.

Hirugarren saria: 100 €.

Tokiko parte-hartzailerik onena: 100 €

Parte-hartzaile bakoitzak sari bakarra eskuratu ahal izango du.

Sari-banaketaren eguna eta ordua Argazki Rallyan izena ematen den bitartean jakinaraziko dira.

Adingabe batek saria jasotzen badu, gurasoek edo legezko tutoreak lagunduta joan beharko du, eta ordezkari horrek jasoko du saria.

OBRAK ETA ERAKUSKETA

Saritutako argazkiekin erakusketa bat egin ahal izango da Kurtzio Kultur Etxean. Irudien jabetza egilearena izango da, baina Sopelako Udalak erabiltzeko eskubidea erabili ahal izango du, betiere irudiaren egilea izendatzen badu, eta betiere rallya sustatzearekin lotutako ekitaldietan.

Erakusketa osatzen duten argazkien formatu fisikoa Sopelako Udalaren jabetzakoa izango da, aurreko paragrafoan aipatutako murrizketekin.

Lehen, bigarren eta hirugarren postuetan sailkatu diren pertsonen argazkiak Herriz Herri (<https://hhargazki.eus/>) webgunean erakutsiko dira, Herriz Herri osatzen duen Rally bakoitzeko gainerako bilduma irabazleen argazkiekin batera.

Lehiaketan parte hartzeak lehiaketaren oinarriak onartzea dakar. Oinarriak onartzean, erabiltzaileak bere datu pertsonalak egiazkoak eta egiaztagarriak direla berretsi eta ziurtatzen du, eta Argazki Rallyan parte hartzeko irudien egilea dela.

Informazio gehiago: ukfotoelkartea@gmail.com